

'Irati' estreinatuko dute gaur

Euskal mitologiako pertsonaiak ditu oinarri Paul Urkijoren lanak, eta VIII. mendean dago girotuta


Olatz Enzunza Mallona Bilbo

Bost urteko lanaren ondoren, gaur iritsiko da Paul Urkijoren *Irati* filma zinema aretoetara. VIII. mendean dago girotuta, eta paganismoaren amaiera kontatzen du: kristautasuna Europan barrena hedatzen hasi zen garaia. Filmean, baina, basoan bizi direnek eutsi egin nahi diete lehengo sinesmenei. Urkijok adierazi du filmaren helburua dela «euskal kulturari eta mitologiari ohore egitea», baina nabarmendu du gidoia «lotzeko zaila» izan dela: «Amets bat betetzea bezala izan da; betidanik izan dut halako zerbait egiteko gogoia. Euskal mitologiako pertsonaiak sartu ditut ezpatak eta sorginkeria nagusi diren film batean. Oso esperientzia polita izan da». Atzo aurkeztuzutuen filma, Bilboko Azkuna zentroan, eta, zuzendariaren gainera, prentsaurrekoan izan ziren Eneko Sagardoi, Edurne Azkarate eta Itziar Ituño aktoreak.

Joxean Muñozek idatzitako eta Juan Luis Landak marraztutako *Irati*ko zikloa komiki bilduma izan da gidoia idazteko abiapuntua. Orreagako (Nafarroa) batailaren ostean abiatzen da istorioa, eta, oro har, borroka eszenak dira filmaren atal garrantzitsuenetako bat. Sagardoik adierazi du «trebakuntza asko» behar izan duela irudi horiek filmatzeko: «Filmatzen hasi baino lau edo bost hilabete lehenago hasi nintzen prestakuntza fisikoarekin. Gimnasia joate eta asko jatea zen lehen baldintza, eta, hala, hamar kilo inguru gizendu nintzen. Hórrez gain, zaldian ibiltzen ere ikasi behar izan nuen. Sinesgarritasuna ematea izan da garrantzitsuenetako bat». Eneko Arista erregearen rola antzeztuko du filmean.

Maitasun ekintza bat

Borrokak borroka, baina, «amodiozko istorio» gisa definitu du filma zuzendariak: «Euskal mitologiari, ezpata eta abentura filmei, eta naturari eskainitako maitasun istorio bat da, besteak beste». Zortzi astean grabatu dute film osoa, eta argi naturala erabili dute, hein handi batean. «Benetako lokalizazioak aurkitzea gakoia izan da», azpimarratu du zuzendariak. Tartean, Arala-



Justo Ezenarro, Edurne Azkarate, Paul Urkijo, Eneko Sagardoi eta Itziar Ituño, atzo, Bilbon. MARISOL RAMIREZ/FOKU

ren, Pirinioetan, Oñatin (Gipuzkoa) eta Pozalaguako leizeetan (Bizkaia) filmatu dute.

Azkaratek egin du Iratirena filmean. Aktorearen lehen lana izan da zineman, eta nabarmendu du «asko» gozatu duela, berretzat «erronka oso handia» izan bada ere: «Film bat egitea zaila da berez gure ogibidean; sari bat izan da. Kolore asko ditu nire perso-

naiak; mundu errealean eta magikoaren artean dabil».

Itziar Ituño, berriz, «kolaborazio oso berezia» egin duela azpimarratu du; Mari jainkosaren rola antzeztu du: «Filmaketako azken astean iritsi nintzen, baina sekulako esperientzia izan da: Mari ez da edonor. Pertsonaia hori interpretatzea opari handi bat izan da niretzat». Era berean,

gaineratu du «harrotasun itzela» dela Euskal Herrian horren esanahi berezia duen film bat egitea.

Nafarroako «protoerresumako euskara zaharra» bilatzen saiatu dira filmean, eta pelikula jatorrizko bertsioan ikusteko gonbita egin du zuzendariak: «Zinema areto gehienek bertsio originalean emango dute filma, eta hori poztasunez hartu dugu».

Perez Sañudo saritu du Euskal Zinemaren Asteak

ZINEMA • Gasteizko Euskal Zinemaren 39. Asteak David Perez Sañudo zinemagileari emango dio *Gutariko* bat saria, bihar egingo den amaiera ekitaldian. Perez Sañudok hainbat film labur eta *Ane* film luzea egin ditu.

El Columpio Asesino taldea desegin egingo da

MUSIKA • El Columpio Asesino Iruñeko taldeak amaierako bira egingo du udazkenean. Bilbon, Donostian eta Gasteizen joko du, eta azken saioa Iruñeko Zentral aretoan emango du. 1999tik sei disko luze atera ditu.

Euskal zinemaren aldeko kanpaina bat egingo du EZAEk

ZINEMA • EZAE EAEko Zine Aretoen Elkarteak *Bidariak* zinerak kanpaina jarriko du abian, Euskal Herriko ekoizpenak sustatzeko helburuarekin. Horren bitartez, egitasmoan parte hartuko duten euskal filmak ikusteko bi euroko deskontua egingo dute Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 79 aretok.

LAGUARDIAKO UDALA

IRAGARKIA

NORMA SUBSIDIARIOAK ALDATZEKO TRAMITAZIOAREN HASIERA.

Honako honen bitartez, Guardiako Udalak iragarren du 2023ko otsailaren 9an osoko bilkura ohikoa egin zuela, eta erabaki hau hartu: onartzea Guardiako Udalerriko arau subsidiarioak aldatzeko tramitazioaren hasiera, aldatzekoaren hasierari dagokion formulazio berruan, garbigune bat ezartzeko asmoz Guardiako industrialdean, 13. zenbakiko 594. partzelan.

Eta, orain, parte-hartze programaren laborpen bat argitaratuko da. Tramitazioa hasteko proposamena osorik aztertu nahi izanez gero, jo web orri honetara: <https://laguardia.egoitzaelektronikoa.eus/transparencya/c142eb70-e9bd-4e59-b009-cc2a36ac5e277>.

Hala ezagutarazten da, mundu guztiak jakin dezan.

Guardian, 2023ko otsailaren 13an.
Sin.: Raúl García Ezquerro jauna. Alkate-presidentea

FASEA	AGIRIAREN TRAMITAZIOA	HERRITARREN PARTE HARTZEA
1. FASEA	HASIERAREN UDAL ERABAKIA	UDAL ERABAKIA: ONARTZEA HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA
	HIRIGINTZA AGIRIAREN ZIRIBORROA HEDATZEA	HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA, ETA JENDAUURREAN KONTSULTAGAI JARTZEA UDALAREN WEBGUNEAN, 15 EGUNEAN
	HIRIGINTZA AGIRIA IDAZTEA	ERANSTEA TXOSTEN BAT JENDAUURREKO KONTSULTAN JASOTAKO IRITZIEI BURUZKOA
2. FASEA	HIRIGINTZA AGIRIAREN HASIERAKO ONESPENA	ARGITARATZEA ALHAI-O ETIA HEDAPENIK HANDIENEGU EGUNKARIAN ERANSTEA UDALAREN WEB ORRIAN BAI HIRIGINTZA AGIRIA ETA BAI EGITARITZE LABURPENA HEDATZEA JENDAUURREKO INFORMAZIOA, ALEGAZIOETARAKO ETA AZALPEN BILKURARAKO ALDIEN EPEEI BURUZKOA
	JENDAUURREKO INFORMAZIO ALDIA: HILABETE	AZALPEN BILKURA ALEGAZIOAK JASOTZEA
3. FASEA	HIRIGINTZA AGIRIAREN BEHIN-BEHINEKO ONESPENA	ERANSTEA TXOSTEN BAT JENDAUURREKO INFORMAZIO ALDIAN JASOTAKO ALEGAZIOEI BURUZKOA
4. FASEA	HIRIGINTZA AGIRIAREN BEHIN BETIKO ONESPENA	ARGITARATZEA BAI ALHAI-O ETIA BAI UDALAREN ETA ALDUINDIAREN WEB ORRIAN

berria

BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIA FINALERDIAK

IZANAN ZIRELAKO GARRA

→ **N. GALEANO-ARRASTIA**

← **ARANBURU-INSASTI**

→ **ZABALETA-AGIRRE**

← **R. INFANTE-ORBEGOZO**

IZARRAITZ AZPETTIA
2023/02/25
18.00

Azpettia
SARRERA 5 €

hamaika